Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2389

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 9koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Anucitan (Araba) den Mimbredoko Errota, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Anucitan (Araba) den Mimbredoko Errotak daukan kultura-interesa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko ebazpen-proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Anucitan (Araba) den Mimbredoko Errota, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskineko mugaketarekin eta II. eranskineko deskripzioarekin bat etorriz.

Bigarrena.– Anucitan (Araba) den Mimbredoko Errota Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedientea jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 20 eguneko epean alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 84. eta 86. artikuluetan oinarrituz. Aipaturiko espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunei, Erriberagoitiako Udalari, Arabako Foru Aldundiko Euskera, Kultura eta Kirol eta Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingu-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2389

RESOLUCIÓN de 9 de abril de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Molino de Mimbredo, sito en Anucita (Álava).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta el Molino de Mimbredo, sito en Anucita, atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Molino de Mimbredo, sito en Anucita (Álava), conforme a la delimitación que figura en el anexo I y la descripción obrante en el anexo II.

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Molino de Mimbredo, sito en Anucita, para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Ribera Alta y a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral

rumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari jakinaraztea, jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean alegatu eta egokitzat jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkeztu ahal izateko.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn argitaratzea, jende guztiak ebazpenaren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 9a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

MUGAKETA

a) Mugaketaren deskribapena.

Honela definitzen da mugatutako eremua: presa barnean sartzen da; presatik, paraleloan, 20 metrora dago aurrealdea eta 10 metrora atzealdea. Orobat, ubidea ere barne sartzen da. Hona ubidearen mugak: ezker aldean, A-3310 errepidea; eskuin aldean, ubidearen luzera osoan, 3 metroko zabalerako distantzia librea. Azkenik, hona errotaren mugak: A-3310 errepidea, eskuin aldean; ibaia, ezker aldean, 20 metrora paraleloan erakinaren atzeko aldera; eta elkarzut, errepidetik hustubide-punturaino, hustubideko ubidearen ibaian, errotaren aurreko aldean.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Egindako mugaketa justifikatuta dago errota osorik gordetzeko beharra dagoelako, hau da, eraikina ez ezik bere azpiegitura hidraulikoa ere babestu beharra dago, oinarrizko elementua baita errota bera definitzeko. Horrenbestez, ezinbestekoa da presa, ubidea eta hustubideko ubidea zaintzea, eta horrexegatik sartu ditugu mugaketaren barruan.

de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

Cuarto.– Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el BOTHA para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de abril de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ANEXO I


DELIMITACIÓN

a) Descripción de la Delimitación.

El área delimitada se define de la siguiente manera: se incluye la presa con una distancia paralela a esta de 20 metros en su parte frontal y 10 metros en su parte trasera. Queda incluido asimismo el canal que se delimita por su parte izquierda por la carretera A-3310, y por la derecha una distancia libre de 3 metros de anchura en toda la longitud del mismo. Finalmente, el molino queda delimitado por la carretera A-3310 a su derecha, río a la izquierda, distancia de 20 metros en paralelo a trasera de la construcción hacia su parte posterior; y perpendicular desde la carretera hasta el punto de desagüe en el río del canal de desagüe, en parte anterior del molino.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación que se realiza se justifica por la necesidad de preservar el molino en toda su integridad, es decir junto con su infraestructura hidráulica que constituye un elemento básico para la definición de aquel. Es por tanto imprescindible la conservación de la presa, el canal y canal de desagüe que quedan por esto incluidos en la delimitación.


ESKALA / ESCALA
60 30 0 60 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
Molino de Mimbredo
Lurraldea / Territorio: ALAVA
Udalerria / Municipio: ERRIBERAGOITIA / RIBERA ALTA
Data / Fecha: 16/11/2009
Eskala / Escala: 1:2.500

II. ERANSKINA

DESKRIPZIOA

Mimbredoko Errota Mimbredon dago, Anuzita herrian, Erriberagoitia udalerrian (Araba). Zehazki, Pobesetik Manzanosera doan A-3310 errepidearen ondoan; errepidearen eta Baia ibaiaren artean.

Presako errota tipikoa da eta funtsezko elementu guztiak mantendu ditu, hala azpiegitura hidraulikoa nola errotaren makineria. Hala, grabitate-presa dauka, aurrealdea apurtxo bat makotuta duena, eta, gutxi gorabehera. 40 metroko luzera eta 1,5 metroko garaiera. Ibaiaren ezker aldean, gainezkabidea dauka, eta alde horretan bertan ubidearen ahokadura dago; ubideak metalezko ataka gordetzen du, harikoa.

Ubidea 300 metroko luzerakoa eta 2 metroko zabalerakoa da, batez beste. Errepidearekiko paraleloa da eta alde handiena induskatuta dago; fabrika-obra azken zatian baino ez. Azken zona horretan gainezkabide zabala dauka.

Errota eraikin xumea da, harlangaitz-hormaz egina, oinplano angeluzuzenekoa, eta etxola bat du erantsia atzealdean. Estalkia bi isurialdekoa da, gailurra fatxadarekiko paralelo dauka; iparraldeko aldean atxikitako etxolan, berriz, isurialde bakarrekoa da. Fatxada hegoaldera begira dago, eta sarbide dinteldun bi ditu: ukuilu-aldera eskuinekotik sartzen da eta ehotze-aretora ezkerretik. Ukuilua lau angeluko gela da, eta eskuin aldean aska bat dago erantsita. Ehotze-aretoa ere lau angelukoa da, eta errotako makinaria duen bankuaz gain, eskuin aldean, beheko sua dago, eta harrizko banku bat hegoaldeko murruari atxikia.

Errotak ez du ontzirik edo antepararik, eta ubidea atxikitako etxolatxotik ahoratzen da, bertan baitaude uhateak, estoldara zenbat ur sartzen zen erregulatzeko erabiltzen zirenak; halaber, estoldan, errota martxan jartzen zuten metalezko errodete bi daude. Estoldak hustubide dintelduna dauka, deskarga-arku baten azpian eta egurrezko burdinazko sareaz. Ubide labur batek eroaten zuen ura ibaira.

Ehotze-aretoaren barruan, fabrika-banku baten gainean (eskaileratxoetatik sartzen da), bi errotarri pare bat finkatzen dira, hauts-babesak, asto gaineko toberak eta garabi-besoak dituztenak. Bankuaren albo batetik estoldara sar daiteke, eskailera-maila zahar batzuen bidez.

Mimbredoko Errotak osorik mantentzen du bere azpiegitura hidraulikoa: presa on bat, ubidea, hustubide-ubidea; errotaren makineria ere hantxe dago. Horrenbestez, Araban dauden mota horretako eraikinen adibide nahikoa osoa eta erakusgarria dugu.

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

El molino de Mimbredo se ubica en localidad de Mimbredo perteneciente al pueblo de Anucita en el municipio Alavés de Ribera Alta. Concretamente, se localiza al lado de la carretera (A-3310) que lleva desde Pobes a Manzanos, entre esta y el río Bayas.

Se trata de un típico molino de presa que conserva todos sus elementos fundamentales tanto la infraestructura hidráulica como la maquinaria del molino. Así, cuenta con presa de gravedad con frente ligeramente arqueado, de unos 40 metros de longitud y altura aproximada de 1,5 metros. En la parte izquierda del río tiene aliviadero y en esta misma parte, se encuentra la embocadura del canal que conserva paladera o compuerta metálica de rosca.

El canal tiene una longitud de unos 300 metros y 2 metros de anchura media. Es paralelo a la carretera y está excavado en su mayor parte, presentando únicamente en su tramo final obra de fábrica. En dicha zona final presenta asimismo amplio aliviadero o socaz.

La edificación del molino es una humilde construcción de mampostería de planta rectangular con caseta adosada en la parte posterior del mismo. La cubierta es a dos aguas con cumbrera paralela a la fachada, y a un agua en la caseta adosada en parte norte. La fachada se orienta hacia el sur y cuenta con dos accesos adintelados, accediéndose a la zona de cuadra por el de la derecha y a la sala de molienda por el de la izquierda. La cuadra es una habitación cuadrangular con pesebre adosado en su parte derecha. En cuanto a la sala de molienda, también cuadrangular, presenta además del banco con la maquinaria del molino, una zona de fuego bajo en su parte derecha y banco de piedra adosado al muro sur.

El molino no cuenta con cubo o antepara y el canal emboca por la casetilla adosada donde se encuentran las paladeras o compuertas para regular el paso de agua que accedía a la estolda, en la cual están los dos rodetes metálicos que accionaban el molino. La estolda presenta desagüe adintelado, bajo arco de descarga y con reja de madera. Un corto canal llevaba el agua al río.

En el interior de la sala de molienda sobre un banco de fábrica al que se accede mediante escalerillas se asientan dos pares de muelas con sus guardapolvos, tolvas sobre caballete y pescantes. Por un lateral del banco unos rústicos escalones dan acceso a la estolda.

El molino de Mimbredo mantiene al completo su infraestructura hidráulica con una buena presa, canal y canal de desagüe y conserva asimismo la maquinaria del molino. Es un elemento, por tanto, bastante completo y representativo de este tipo de construcciones en el territorio alavés.